

Haur denbora Ahatsan eta Gasnategin

E.: ta, beraz, erran duxu Aatsa-Xilon sortia

M.: Aatsa-Xilon sortia, Etxebestia etxia, izena.

E.: Etxebestia, ta hogoita zortzian sortu xinden?

M.: bai.

E.: eta gero noiz jin xinden hunat?

M.: ah, hunat?

E.: ba.

M.: bah, aspalditxo ba, jaanik eskolan ibiltzeko, etxe untan nintzan pentsionian,

E.: so ixu.

M.: ara.

E.: ta eskolan hasten zinezten sei urthetan edo hola? Leeno, edo...

M.: ez, ez, sei urtetan, ta geo hemen, etxe untan nintzan, donc, beatzi urtetaik eta hamairu urte artio.

E.: hamairu urthe artio.

M.: geo fini, akabo.

E.: hemen. Etxe huntan erran duxu beatzi urtetaik hamairu urte artio, ta gero?

M.: ba, ba.

E.: ta gero?

M.: gero, berriz, Gasnateirat, aitetamekin.

E.: eta gasnategia non zinuten?

M.: ba, Gasnatei izena dien erreka hortan.

E.: ah, ori erakutsi duxun leku hortan, ez?

M.: hor, hor ginenean etxola, etxola.

E.: eta hori non zuxun, Mendiben?

M.: non, Lekunberriko lurra da ori.

E.: Lekunberriko lurra uxu, eh?

M.: Lekunberriko lurra uzu hortik eta Egurgiko eta juntaano.

E.: ba.

M.: dena.

E.: hor bauxu nahaspulla re, eh! Zoin den Mendibe, zoin den Lekunberri.

M.: non, non.

E.: bauxu, eh?

M.: non, non, Salbatoreko hegi-hegiak iten du junta Mendibe ta Lekunberri, eta Hartxaleta beiti, geo hor beerian ez dakit nola den, bena gaiñean sindikateko lurruk baute junta, ba, oui, oui.

E.: untsa, ta aita ta amak nongoak zintien, nongoak xintien?

M.: ba, aita Mendibeko eta ama ezterentzubiarrar.

E.: ah, eztentzubiarrar! Ba, hartako, baziakikexun ardieng ingurian gauza anitz, ezterentzubiarrek badakixie!

M.: oui, hua re gero eta aitetamekin Gasnategin bizi zen, berriz, jadanik, eta eskola utziz geoz, ordian hala.

E.: ez zukexun urrun ua Ezterengibeltik ere, ez zukexun batere hurrun, ez?

M.: ez, ez, ba, Eztengibeleko etxe batian zen, ah ba, orduko familiak denak andiak baitzien,

E.: ba, ordian ba.

M.: bazen denetaik. Ez dakit zonbat aur zien ek e, gure aita ta re bazien zazpi, ara, ta hola.

E.: ziek zonbat haurride zinezten?

M.: gu hiru.

E.: hiru. Hiru aurride, beraz, oaiko modernak bezala.

M.: ba, ba, ba, ba, jaanik ttipitzen ari zen (irriak) familia. Bon, bazien lauzpost haurrekoak, ba, ba, ono gure jeneazione izan dira emen bost haur filialian, ba, ba.

E.: apez horiek ere erten baitzuten leeno bear zirela haurrak ukhan, nola gerta. Hala ukan, ez?

M.: oui, ba, orduko fini zen, eh!

E.: orduko deia...

M.: oaixtian erten bainuen eta mariñelen aumônier zen harek erraiten zien: “ah, jinkoak benedikatzen ditu familia aundiak, bana ez ditu kontseillatzen.

E.: ez.

M.: harek anitz erran nai zien, eh!

E.: hak e bazakikexun haindako doia, eh!

M.: ba, hemen jaanik bazien hameka aur, ordian ikusazu, bazakien zer zen bizitzia, oui, oui.

E.: eta, beraz, eskolak noiz utzi txu?

M.: hamairu urtetan!

E.: hamairu urtetan utzi xintien.

M.: ba, hamairu urte ta pasia, pasa, ara, bai.

E.: beraz, ikasiko zinuten leitzen eta gauza horiek, matematika kotsia re, ta...

M.: ah ba, ba, zertifikatia re bazen, hua zen etsaminik ttipiena, eh! Eta nekez ai nintzan, eh, ni eskolan.

E.: ah, bena gero beste gauza batzuetan ari izan xira, aise!

M.: ba, bena eskolan tonto, zertifikatea joan nintzalaik erran zaan hemengoak: “ez dik balio joan hadin, mando hilari ez dik balio uzkitik olo”. Konprenitzen duzu?

E.: apepres ba, ba, ba, mando hilari ez diela balio uzkitik olo?’

M.: uzkitik oloa, baizu, oloa bazen pikotina, picotin erraiten da frantsesez, zaldaria.

E.: ba, ba, ba, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filología doktorego-programa

Leteren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala